


# Kai Handia

Uxue Juárez Gaztelu



erein



# KAI HANDIA

Perzebal, 44



Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2022ko irailean*

Jatorrizko izenburua: *El Gran Muelle*

Azalaren irudia:

Araiz Mesanza

Maketazioa:

Erein

© Uxue Juárez Gaztelu

© Itzulpenarena: Miren Arratibel

© EREIN. Donostia 2022

ISBN: 978-84-9109-851-5

L. G.: D 1075 - 2022

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)



Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [edizioak@itxaropena.net](mailto:edizioak@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

# KAI HANDIA

UXUE JUÁREZ GAZTELU

*Itzulpena*

MIREN ARRATIBEL



erein



*Barruan daramazun pirata txiki horri:  
nabigatzen, olatuaren gandorreak,  
ezagutzen dugu gure burua.*

*Ottori, nire pirata txikiari.*





Kontakizun guztiak basoan hasten dira.  
Bazen behin otso bat  
eta otsoaren garezurrean, txori baten marrazkia.

MARÍA JOSÉ FERRADA

mugimendu bat argirantz  
airea olibondo hosto bat daramala  
bada zerbait begetala honetan guztian  
frutak salbatzera balihoaz bezala da  
hurbiltzen da ilara bat  
txolarre gardenena

LUZ PICHEL

Artasoroak garai lezake gerraria.

KIKUYU ESAERA ZAHARRA




ITSASONTZIEI BURUZ DAKIDAN GUZTIA LANBRO FLOATERREK  
ERAKUTSI ZIDAN.

HARENTZAT DA HAINBAT URTEZ LAGUN IZAN DUDAN  
BIDAIA KOADERNO HAU.



Hiri Handia







Kai Handira hurbiltzen dena Hiri Handiko etxe orratzetako iskanbilatik urrundu nahian hurbiltzen da. Itxura batean, kaiak ez du ezer berezirik, baina *zoomaz* begiratu eta arreta jartzen badiozu, hantxe ikusiko duzu Geraldine, Liptrot Lachlan jaunaren Rufus hamsterraren atzetik; eta Ekaitz Langstrump, buzoa lanabesez gainezka daramala, honako itsasontzi hau edo harako beste hura zaharberritzeko; eta sei bat laguneko talde bat, ikastunak, haren azalpen guztiak zuhur aditzen eta Ekaitz gogaitu lezakeen inolako hotsik ez egiteko kontu handiz, zeren, norbaitek Ekaitz eteten duenean, haren bekainak okertzen dira olatu bat bezala, eta, istantean, haren ahotsa lehertzen da indar biziz, harkaitzen kontra marruka ari balitz bezala. Baliteke Ekaitzen oldarraldien beldur ez den bakarra neu izatea, Oona, haren alaba, eta, nitaz gainera, gure bizilaguna, Lanbro Floater

andrea. Nire ama nire ama da, eta ama batekin jakina nola izaten diren kontuak; neurria hartua dizu berak zuri, baita zuk berari ere.

Kai Handira iristen lehena Liptrot izan zen, itsasontziak egiten zituen arotz erretiratu bat. Hark gogoratzen du argien nola hasi zen dena eta nola sortu zen uretako komunitatea. Beti aurkezten du bere burua marinel zahar eta Kai Handiko kontseilari modura, baina badakit nire galderekin zalantza eginarazten diodala, eta, hori gertatzen denean, Liptrot gizajoak «utzi behingoz galdera lotsagabeak egiteari, neska mukizu halakoa» esan, eta eskuaz alboratzen nau, eulia uxatzen ariko balitz bezala. Ez naiz haserretzen. Izatez, grazia egiten dit Liptrotek. Gustukoa dut hura bere onetik ateratzea, eta ez da konturatzen txantxetan ari naizela. Agure petrala da.

Itsasontzi, arrain eta ur landareez benetan dakiena Lanbro da, bizilaguna: andre luzanga bat, aldarre oneko egoten dena beti. Badu seigarren zentzu moduko bat, katuek bezala. Agian horrexegatik izango ditu hainbeste katu. Esaten du katuak direla bere familia. Liptrotez, nire amaz eta kanaleko gainerako biztanleez gainera, jakina.

Atzera begiratzen dudanean, ohartzten naiz itsasontziez eta itsasketaz dakidan guzti-guztia Lanbro Floaterrek erakutsi zidala. Hari zor diot, neurri batean, pirata bihurtu izana. Tira, hari, eta uretako



biztanleei. Eta txikitan behin eta berriro irakurtzen nuen azal gorriko liburuari. Orain, abiatzeko eguna iritsi zaidan honetan, korapiloa sentitzen dut urdailan, amaierako puntua idazten ari bainaiz, nolabait esateko gure historia kolektiboaren mapan. Hala ere, amaierako puntua abiapuntu ere izaten da askotan. Nola begiratzen zaion.

Kontakizun honetan azaltzen da nola, batzuetan, pertsonak, izan pirata nahiz ez, bat egiten duten eta sostengua ematen dioten elkarri, sortzeraino sare egoskor, sendo eta irmo bat, eta nola ni, Oona Langstrump, egin nintzen pirata.

Kontakizun guztietan bezala, honetan ere bazegoen otso bat hasieran, baina, pixkanaka, hango biztanleek bete zuten otsoaren ahoa lumaz, haziz eta adarrez. Eta otsoa egondako tokian jaio zen zuhaitz bat, eta gero beste bat eta beste bat. Eta zuhaitz bakoitzean margotu zuten biztanleek txori bat.

Basoan lehen txorrotxioa entzun zen egunari buruz hitz egiten du kontakizun honek.



– UDA –



– 0 kapitulua –

LANBRO FLOATER PETREL BATEN KANTUA ENTZUTEN  
ARI DELA, LIPTROT LACHLAN GABARRAN SARTZEN DA

—Beste bi iritsi dira gaur gauean, eta libre genuen itsasontzi urdina okupatu dute. —Lanbro ile xerlo bati hozka ari da, Liptroti hitz egiten dion bitartean—. Kaian aurkitu ditut, zaku batzuen gainean lo. Ama hatz koskorrak kraskatzen ari zen, hezetasunaz kexu. Besoa alabaren sorbaldaren gainean jarri, eta esaten aritu zaio dena ongi aterako zela, ez kezkatzeko. Baina ni ez nau engainatuko. Begietan ikusten zaio. Tristura ilun eta astun bat ezkututzen duten eta munduari hontzek bezala adi begiratzen dioten horietakoa da. Ezagutua naiz horrelako makina bat. Besteei abisatu behar diegu. Gero eta zailagoa da bizimodua kanalean.

—Bai. Antolatzen hasi behar dugu.

– 1. kapitulua –

EKAITZEK AHANTZI NAHI DUEN HORI, ETA OONAK  
PENTSATU NAHI EZ DUENA, LANBROK GALDETZEN  
DIENEAN ZERK ERAMAN DITUEN GAUA KAIAN  
PASATZERA

Arraina frijitzen amaitutakoan, bi platera hartuta atera da Lanbro sukaldetik. Ekaitz eta Oonari eskaini die; utzi dieten gabarran egokituta daude dagoeneko. Beren aulkietan mugitzen hasi dira, ez dakite nondik hasi. Lanbro zain dago, isilik, galdera ikur erraldoi baten modura. Isiltasuna luzatzen ari denez, hitz egitera bultzatzen ditu.

—Zer gertatu zaizue, zehazki? —galdetu du, esertzeaz batera.

—Kanporatu egin gaituzte. Atea bota digute. —Ekaitz mahai gainean bermatu da, eskua bekokian jarrita—. «Bost minutu», esan dute, «bat gehiago ere ez». Etxegabetzea etxegabetzea da. Ekintza gupidagabea, guztiz.

Lanbro Oonari begira dago, baina neska txikiak ez du hitzik esaten. Kosta egiten zaio kontzentratzea: listua irentsi du, etxean utzitako guztia gogoratuz, triste. Gogoratuz, badaki, sekula berreskuratuko ez duen hura dena: koadernoak, elastikoak, bainujantzia, koloretako lanpara, komuneko

ispiluko mantangorria, txikitako jostailuak, mila piezako puzzlea eta oilarraren iratzargailua. Sardexkak, koilarak, amak bizkotxoetarako irina, arroza, pasta, txitxirioak eta kafea gordetzen zituen etiketadun potoak. Liburuen apala. Maindireak eta txori urdinen marrazkien manta, zeinaren azpian estu-estu egiten baitzen gauzez beldurra zuenean. Non ote dago dena? Norbaitek hartuko zuen?

Oonak ez du esaten, baina berak ere izugarrizko beldurra pasatu du. Gogoratzen da nola gelditu zen egongelaren erdian, mugitu ezinik. Bi polizia haiek ama eramango zutela pentsatu zuen une batez. Horregatik hurbildu da orain mahaira eta uzkurto da amaren alboan, babes bila.

—Ez zarete kanalera etxegabetze baten ondorioz iritsitako bakarrak.

—Ez geneukan beste irtenbiderik. —Ekaitzek alabari begiratu dio, lehenik, eta Lanbrori, gero—. Zer egin behar genuen bestela?

—Ez kezkatu, hemen zaudete jada. Lagunduko dizuegu. Marmol Money madarikatu hori... Kanal osoa dauka beldurrak akabatzen.

—Baina nor da zehazki? Hain boteretsua al da? —Ekaitzek atsekabea sentitzen du eztarrian gora igotzen, armiarma txiki hotz baten modura.

—Hiri Handiko gizon aberatsena da. *Etxegabetzailea*, halaxe esaten diote.

Ekaitzek burua makurtu du, eta isilik geratu da. Oona eginahaletan ari da negarrari eusteko, baina ezinezkoa zaio. Hitzek dikea eraitsi dute, eta malkoak isurtzen hasi zaizkio bata bestearen atzetik.

Amak indarrez besarkatu du.